

Euskalitek M. U.-ko ETEO-ko langileak omenduko ditu Zilarrezko Q lortzeko egindako lanagatik

2007/08/05

Euskalitek Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko langileak eta erakundeak omenduko ditu bihar, ekitaldi ofizial batean, Zilarrezko Q lortzeko xedez kalitatearen eta kudeaketa-bikaintasunaren aldetik egindako ahaleginengatik. Ekitaldia osteguna, hilak 14 izango da, 11:00etan, Enpresa Zientzien Fakultateko 106. gelan. Eusko Jauriaritzako Unibertsitate Sailburuorde **Ibone Amezagak**, Mondragon Unibertsitateko Errektore **Iosu Zabalak** eta Fakultateko Dekano **Lander Belokik** parte hartuko dute ekitaldian.

Eusko Jauriaritzak kudeaketaren kalitatea saritzeko emandako bereizgarria da **Zilarrezko Q**. Euskalitek Kudeaketa Bikaintasunaren Europar Ereduaren arabera egindako kanpo-ebaluazioan 400 puntu baino gehiago lortzen dituzten erakundeei ematen zaie.

Kanpo-ebaluazioa erakunde baten kudeaketaren analisi orokor eta sistematikoa da. Adu independenteek egin ohi dute ebaluazioa eta, horrela, erakundearen kudeaketaren bikaintasun-mailaren ikuspegi objektiboa eskaintzen du.

Ibilbidea

Unibertsitateak irakatsi eta ikasteko jardueran, ikerkuntzan, etengabeko prestakuntzan, gradu ondoko prestakuntzan eta pertsonen kudeaketan egindako eboluzioa egiaztatzeko balio du Euskaliten kanpo-ebaluazioak. Horri esker, bereizgarriak sendotu egingo du Enpresa Zientzien Fakultatearen misioa, hau da, gizartearen aldaketarekiko konpromisoa eta aurrerapen humanistiko, teknologiko eta ekonomikorako ekarpena, ikasleentzako kalitatezko prestakuntza integralaren bidez. Misioaren oinarriak, berriz, honako hauek dira: ikasleen profilak gizartearen premietara egokitzea, I+G+Bko jardueren balio erantsia, langileen eta ikasleen lan-baldintzak eta baldintza pertsonalak eta gizarte-bokazioa.

Bikaintasunaren funtsezko kontzeptuak aplikagarriak dira era guztietako erakundeentzat, euren sektorea eta tamaina edozein direla ere, eta Bikaintasunaren EFQM Ereduaren oinarria osatzen dute. Funtsezko kontzeptu horiek ondorengoak dira:

- Emaizetarako orientazioa.
- Bezeroenganako orientazioa.
- Lidergoa eta koherentzia.
- Prozesuen eta ekintzen araberrako kudeaketa.
- Pertsonen garapena eta orientazioa.
- Etengabe ikasi, berritu eta hobetzeko prozesua.
- Erakundearen erantzukizun soziala.

